

» TELEGRAMA

Eraso eta Humus taldeen eskutik, gau kañeroa prestatu dute irailaren 16an Donostiako Dokan. 20:00etatik aurrera, sarrera 7 euro **STOP** Irailaren 15etik martxan da Bilborocken **Villa de Bilbao pop-rock lehiaketa**: kontzertu ugari eta estilo askotakoak, eta denak doan! **STOP Neighbor**, Maite Larburu hernaniarrak eta Josh Cheatham estatu batuarrak osatzen duten taldea zuzenean entzuna ahalko dute Iruñean: zita Katakraken da, irailaren 20an, 19:00etatik aurrera **STOP**

» KONTZERTUA

Egurra latza



Joxi Ubeda

**Inorabidea**

ZTAH

Autoekoizpena, 2016

Hamabi kantu basati eta bortitz dau-
de Ztah taldearen diskoan. Doinu ilu-
nak, astunak eta errepikakorrak dira,
eta deathcore, hardcore eta metal ai-
reak suma daitezke kantuetan. Gupi-
darik eta errukirik gabe aritzen dira,
inolako txantxarik gabe. Taldekideek
egurrarkore bezala definitzen dute be-
raien musika. Hala baita, egurra latza.
Oso ongi egina, eta diskoa bera ere eder-
ki ekoitzia dago.

Kantuen bidez kritika, salaketa eta
aldarria egiten dute: "Abiadura handiko
bizirik ez, dugunarekin nahikoa dugu,
abiadura handiko trenari ez, bizitzeko

denbora behar dugu". (*Tren tren*), "Es-
kemak apurtu, saihezbide guztiak bide
nagusira joaten baitira!" (*Inorabidea*),
"Faxismo gordea demokraziaren gibe-
lean" (*Ilusioarekin dantzaz*), "Beti diru
gehio behar, amaiera gabeko gose han-
dia" (*Ehun hamar dollar*), "Naturaren
harrapaketak, ingurumenaren kutsa-
tzeak, gizakiaren hedapenak ondorio
bakarra dute, gizakiaren desagerpena"
(*Zazpi miliar arrazoi*), "Geroa sortu,
etorkizuna zure esku dago, ideiak bul-
tzatu, etorkizuna gure esku dago" (*Ge-
roa sortu*), "Zein izango da bere patua,
eraso matxisten biktimak? Hurrengo zen-
baki mutua?" (*Txanogorritxuren patua*),
"Ez saldu Euskal Herria, gure herria ez
saldu" (43769).

Ztah taldea 2010. urtean sortu zen
Donibane-Ziburuko gaztetxean. Oier
(Hats, Stakipop), Jon (Hats, Stakipop)
eta Pilo (Glokom) ziren hasierako talde-
kideak eta ondoren Iñaki (Dementzia,
e-Volv, PIBAllStar...) haiekin elkartu zen.
2011. urtean EP bat kaleratu zuten eta
aurten argitaratu duten *Inorabidea* dis-
koa beraien lehen lan luzea da.

Taldea jendaurreko emanaldi batean
ikusteak merezi du, dudarik gabe, trans-
mititzen duen indar guztia hurbiletik
ikusteko eta sentitzeko. ■

Ztah taldea agertokian.

